



PRENTSA OHARRA: 2021.11.12

## **Marina Otero Shanghaiko Biurtekoko komisarioak euskal arte garaikidearen testuingurua ezagutuko du Etxepare Euskal Institutuaren eskutik**

- Bertako praktika artistikoak ezagutzera eman eta nazioarteko testuinguruarekin loturak sustatzea xede duen ZABAL egitasmoaren baitan gonbidatu du Institutuak.
- Azaroaren 16an hitzaldi irekia emango du Gasteizko Artium Museoan.

Marina Otero, pasa den ekainean bukatu zen 13. Shanghaiko Biurtekoko komisarioetako bat izan dena, Euskal Herrira etorriko da hiru egunez bertako proiektu, eragile, eredu eta praktika artistikoak lehen eskutik ezagutzeko.

Azaroaren 15etik 17ra, Donostia, Gasteiz eta Bilbon, euskal testuinguruko hainbat artista eta eragilerekin egoteko aukera izango du, eta bertako museo eta sorkuntza zentro batzuk bisitatuko ditu.

Shanghaiko Biurtekoa Txinako arte biurteko finkatuena da eta mundu osoko artista, kuradore, idazle eta artezaleei beren esperientziei, lanei eta inspirazioei buruzko ideiak trukatzeko eta nazioarteko elkarrizketak garatzeko gune bat eskaintzen die. Asiako ekoizpen eta sormen artistikoaren lorpenak nabarmentzen ditu bereziki, eta ekialdearen eta mendebaldearen arteko munduaren banaketa konbentzionala desafiatzen du.



Bere egonaldiaren baitan, Marina Oterok aurkezpen ireki bat egingo du, sortzaile guztiei eta entzulego orokorrari eskainia. Hitzaldia azaroaren 16an, asteartea, izango da, 18:00etan, Gasteizko Artium Museoan. Shanghaiko Biurtekoko 'Bodies of Water' kontzeptua eta pandemia garaian, proiektua garatu zenean, sortu ziren lan-baldintza berriak izango ditut hizpide. Artista batzuen lanetan ere jarriko du arreta, Itziar Okaritzen lana barne, biurtekoaren funtsezko zatia izan baitzen.

## **ZABAL egitasmoa**

2019. urtean jarri zuen martxan Etxepare Euskal Institutuak ZABAL egitasmoa, sortzaileen, profesionalen, eragileen eta tokiko erakundeen arteko epe luzeko trukea eta lankidetzaren sustatzen eta errazten duten nazioarteko sareak garatzea helburu duena. Horretarako, nazioarteko komisario, arte kritikari eta museo zuzendariak gonbidatzen ditu Institutuak Euskal Herrira, harreman zuzenaren bitartez euskal artistekin elkarlana sustatzeko.

Proiektua aurrera eramateko, tokiko eta nazioarteko arte garaikidearen inguruko proiektuen kudeaketan lan egiten duen Artingeniumen, Lourdes Fernández buru duen arte bulegoa, lankidetzaren du Institutuak.

2019ko azaroan etorri zen lehen gonbidatua: Ruth Estévez São Pauloko bienaleko komisarioa. 2020ko otsailean ruangrupa kolektiboko kideak izan ziren, dokumenta 15eko zuzendari artistikoak. Pandemiak eragindako etenaldiaren ostean, Marina Oteroren bisitarekin emango zaio jarraipena egitasmoari.

Egitasmoak eman ditu bere lehen fruituak. Izan ere, Consonni Bilboko argitaletxe eta kultur espazio independentea 2022ko ekainean Kassel-en (Alemania) inauguratuko den nazioarteko documenta 15 erakusketa entzutetsuetan parte hartzeko aukeratua izan da.

## Marina Otero

Marina Otero Verzier arkitekto doktorea da, Het Nieuwe Instituut-eko (Arkitektura, Diseinu eta Kultura Digitalaren Holandako Museo Nazionala, Arkitektura Artxibo

Nazionala duena) Ikerketa zuzendaria, Rotterdamen, eta Design Masters Sozialaren zuzendaria Design Academy Eindhoven-en. Komisario lanak, besteak beste, honako proiektu hauek biltzen ditu: Holandako pabilioia Veneziako Arkitektura Bienalean

2018an, Oslo Architecture Triennale 2016 eta Shanghaiko 13 Bienala 2021ean. Aurretik, Marinak Studio-X GSAPPko zuzendari gisa lan egin zuen, Amman, Beijing, Istanbul, Johannesburg eta Tokumburgen egoitza duten hirien etorkizunari buruzko ikerketa-zentroen sare globalean. Marinak lankidetzan argitaratu ditu *Unmanned: Architecture and Security Series* (2016), *After Belonging* (2016), *Work, Body, Leisure* (2018), *Architecture of Appropriation* (2019), *I see that I see what you don't see* (2020), *More-than-Human* (2020), *Dixit # 2 A Matter of Data and Lithium: States of Exhaustion* (2021). ETSA Madrid, Royal College of Art Londres, Columbia University GSAPP New York, Barnard College New York eta Geneva University of Art and Design-en irakasle izan da, besteak beste.

## Info+

Mikel Lasa  
Etxepare Euskal Institutua  
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1  
Donostia / San Sebastián  
T: 943 023 400 / M: 688 670 217  
[komunikazioa@etxepare.eus](mailto:komunikazioa@etxepare.eus)

[www.etxepare.eus](http://www.etxepare.eus)